

**GIZARTE ZERBITZUEN ERAKUNDE ARTEKO ORGANOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

EGUNA: 2016ko ekainaren 23a

TOKIA: EUSKO JAURLARITZAKO EGOITZAN (Lakua II, 6. gela)

HASIERA ORDUA: 16:00

AMAIERA ORDUA: 17: 48

BERTARATUTAKOAK:**LEHENDAKARIA:**

Angel Toña Guenaga jn, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko sailburua.

KIDEAK:

- Eusko Jaurlaritzako ordezkaria:
- Lide Amilibia Bergaretxe and., Gizarte Politiketako sailburuordea.
- Emilio Sola Ballojera jn., Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
- José Javier Miguel De la Huerta jn., Familia Politika eta Komunitatearen Garapenaren zuzendaria
- Hernando Lacalle Edeso, Aurrekontuen zuzendaria (Pedro M^a Hernando Arranz jaunaren ordezkari, Ekonomia eta Aurrekontuen sailburuordea).
- Andrés Zearreta Otazua jn., Administrazio Publikoa eta Justiziako sailburuordea.

- Foru Aldundien ordezkariak:

- Isabel Sánchez Robles and., Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako diputatua.
- Maite Peña López and., Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua.

Era berean, bilerara etorri dira Foru Aldundietako kideen ordezeko gisa hartzen direnak:

- Marian Olabarrieta Ibarrondo and., Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
- Sergio Murillo Corzo jn., Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritzako zuzendaria

Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkari gisa:

- Josu Bergara López jn. Sestaoko alkatea
- María Natividad López de Munáin Alzola and. Elburgoko alkatea.
- M^a Jose Blanco Gaviero and. Portugaleteko zinegotzia.

Era berean, gonbidatu gisa bertaratutakoak:

- Mar Zabala Mardaras and., Euskadiko Udalen Elkarteko zuzendari nagusia (EUDEL).
- Jose Luis Alonso Quilchano jn., Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizatearen Foru Institutuko zuzendari gerentea eta adierazi du Beatriz Artolazabal Albeniz and. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako diputatua ezin dela bertan izan.
- Jon Iribar Goenaga jn., Gipuzkoako Foru Aldundiko Planifikazio eta Hitzarmen zerbitzuko nagusia.



GAI-ZERREDA

1. Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea (2015/10/26).
2. 2016. urterako Goi Ikuskapenerako Jarduera Planari buruzko informazioa
3. Euskal Autonomia Erkidegoko zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko dekretuaren gaineko nahitaezko txostena igortzea.
4. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako Funtsaren Banaketari buruzko informazioa.
5. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman integratutako zerbitzuen ikur bereizgarria (Gizarte Zerbitzuei Buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 81. artikulua)
6. Galderak eta eskaerak.

Goian aipatutakoekin bilerari hasiera eman zitzaion.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko organoaren lehendakari gisa, etorritakoei ongi etorria eman die.

Jarraian, gai-zerrendan jasotako puntuak jorratzeari ekin zaio.

1. Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea (2015/10/26).

2015eko urriaren 26ko bilkurako akta onartzen da.

2. 2016. urterako Goi Ikuskapenerako Jarduera Planari buruzko informazioa

Ángel Toña jaunak Gizarte Zerbitzuetako Goi Ikuskaritza gidatzen duen arau-esparrua azaldu du:

- Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen VII. tituluak honela izena du: Ikuskatzea eta arau-hausteen eta zehapenen araubidea.
- Jarduera-eremua zehazten duen 82. artikulua hau dio: «Eusko Jaurlaritzari dagokio gizarte-zerbitzuen arloko goi-ikuskaritza egitea, 2. artikuluan aldarrikatutako eskubide



subjektiboa benetan erabiltzen dela eta aplikagarri den ordenamendu juridikoa bete eta gordetzen dela bermatzeko»

- 84.2 artikulua adierazten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari eta Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoari emango zaiela Goi Ikuskaritzak burututako jardueren berri, bai eta egindako txosten eta irizpenen berri ere.

Aipatu du, horregatik guztiagatik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2016rako Goi Ikuskaritzak aurreikusitako jarduera-planaren berri eman nahi diola Organoari.

Horri buruz xehetasun gehiago izateko, Lide Amilibia andreari ematen dio hitza, eta hark 2016ko ekitaldian Goi Ikuskaritzari dagozkion zereginak azaldu ditu.

1.- Telelaguntza Zerbitzu Publikoa deritzon prestazioa garatzeko eta sendotzeko lanetan, kudeaketa eraginkorra, ekitatiboa eta kalitatezkoa den egiaztatzea.

2.- Hirugarren sektoreari buruzko Legea.

Testu osoa aztertuta, Goi Ikuskaritzak egiaztatu beharko du nola antolatuko edo artikulatuko diren lege horretan jasotako betebeharrak:

- Politika sozialen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundearen errola publiko bat sortuko du eta eguneratuta edukiko du. (5. artikulua)

- Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen alorreko eskumena duen sailak, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeekin eta sareekin lankidetzan, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren edo hura ordeztzen duen erakundearen bitartez, hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategia bat egingo du; alderdietako bakoitzak sustatuko dituen jardunak eta lankidetzan egindako jardunak hartuko ditu estrategia horrek barnean, bai eta hartarako behar diren koordinazio-mekanismoak ere. (17.1. artikulua)

1.- Politika sozialen esparruan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak urtean behingo txostenak egingo ditu, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sareak sustatzeko ekintzari buruz, eta horrez gain, erakunde eta sare horiek hobetzeko orientabideak ezarriko ditu. (19.1. artikulua)

- Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia sortzen da. Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen eskumena duen sailaren mende egongo da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren tresna tekniko bat izango da. Eginkizuntzat edukiko du informazioa



eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea, sortzea eta ezagutzera ematea, hirugarren sektore sozialarekin eta hartan sartutako erakunde eta sareekin zerikusia duten arloetan. (25.1. artikulua)

3.- Gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeari buruzko prozedura egiaztatzea. Prozedura hori urriaren 7ko 424/2013 Dekretuak arautzen du.

Testuinguru horretan, jarduera hauek garatuko dira:

-Honako prozedura eta betekizun hauek betetzen diren begiratzea: Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuen alorrean diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeek gizarte-intereseko deklarazioa lor dezaten bete beharreko prozedura eta beharkizunak, bai eta gizarte-intereseko deklarazioa berritzeko eta mantentzeko baldintzak ere.

-Egiaztatzea gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeari buruzko dekretua zuzen aplikatzen zaiela Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuen alorrean diharduten eta betekizunak betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei.

-Egiaztatzea irabazi-asmorik gabeko erakundeek badutela gizarte-intereseko deklarazioa lortzeko baldintzak egiaztatzeko bide horren berri.

-Prozedura hau betetzen den egiaztatzea: gizarte-intereseko deklarazioa lortutakoan, halakorik lortu duten erakundeek gizarte-zerbitzuen arloan eskumenak dituen Zuzendaritzari dokumentu hauek igorri beharko dizkiote, urtero, ekitaldiko lehen hiruhilekoaren barruan: lehendakariak eta idazkariak sinatutako erantzukizuneko deklarazio bat, zeinetan adierazten den, ezen eurek ordezkatzan duten erakundeak bete egiten dituela deklarazioaren oinarri izan ziren betekizunak; eta horrekin batera, aurreko ekitaldiko urteko kontuak, eta ekitaldi horretan egindako jardueren gaineko memoria deskriptiboa

4.- Familia Bitartekaritzaren zerbitzu publikoa deritzon prestazioa garatzeko, mantentzeko eta sendotzeko lanetan, kudeaketa eraginkorra, ekitatiboa eta kalitatezkoa den egiaztatzea.

Zerbitzuari dagokion fitxaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren beharren arabera, honako ekintza hauek gauzatuko dira:

-Egiaztatzea ea familia-bitartekaritzako zerbitzuak kontratatzeari buruzko oinarri teknikoen plegua nahiz baldintza partikularren azala zein plegua bat ote datozen zorroaren fitxarekin eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren beharrekin.

-Familia-bitartekaritzako hiru zerbitzuak ebaluatzeko tresnen emaitzak berrikustea. Tresna horiek



bitartekaritza-prozesu batean parte hartzen duten pertsonen gogobetetasun-maila neurtzen dute eta, horretarako, zerbitzuaren pertzepzioari buruzko hobetzeko galdetegiak erabiltzen dituzte, helburu hauekin:

- ☐ Euskadiko bitartekaritza-zerbitzu publikoko prestazioa kontratatzeari buruzko oinarri teknikoen pleguan aipatzen diren kalitate-eskakizunak betetzen direla egiaztatzea.
- ☐ Erabiltzaileek bizitu duten bitartekaritza-prozesuak gabeziarik edo informazio egokiaren faltarik ez duela egiaztatzea.
- ☐ Erantzunen arabera hala badagokio, zerbitzuarekin lotutako zenbait alderdi hobetzeko proposatzea.
- ☐ Informazio juridikoa eta ematen diren gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa egiaztatzea.

-Aurkeztutako urteko memorietako ondorioei behatzea eta aurrerapenak proposatzea hartzen diren akordioei buruz, egiten diren jarraipen-prozesuei buruz eta beste zerbitzu eta erakunde batzuekiko koordinazioari buruz.

-Bitartekarien Erregistroaren funtzionamendua egiaztatzea, honako honetan araututa dagoena: 246/2012 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Bitartekarien Erregistroari buruzkoa eta erregistro horretan inskribatzeko egiaztatu beharreko familia-bitartekaritzako prestakuntza zehaztekoa.

5.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari, esku hartzeko oinarrizko prozeduren hasierako Fitxa Soziala betetzen eta formalizatzen dela egiaztatzea.

Testuinguru horretan, jarduera hauek garatuko dira:

-Egiaztatzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek behar bezala betetzen dutela Gizarte Zerbitzuen Euskal

Sistemaren fitxa soziala, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal

Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzko maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretuaren I. eranskinean ezarritako ereduaren arabera, eta Eusko Jaurlaritzara bidaltzen dutela, estatistikoki ustiatu eta tratatu ahal izateko.

-Behar denean, errekerimenduak eta jarraibideak ematea fitxak betetzeko.

-Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren fitxa sozialean dauden datuak, tratatu ondoren, gizarte-zerbitzuen euskal sisteman informazio estatistikotzat hartzen direla egiaztatzea.

6.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnaren erabilera egiaztatzea eta begiratzea.

Gizarte-diagnostikoari dagokionez, honako jarduketa hauek garatuko dira:



- Begiratzea diagnostikoak modu egokian egiten diren. Horretarako, kontuan hartuko da diagnostikoa egingo dela baldin eta gizarte-langileari, hasierako balioespen baten ondoren, jarraipena behar duen esku-hartze bat egin behar dela iruditzen bazaio. Aintzat hartuko da, halaber, diagnostikoaren emaitzari esker zehaztuko dela zer mailatakoak izango diren egin beharreko esku-hartzeak, eta zer zerbitzu eta prestazio eskainiko dituzten udalek, foru aldundiek edo autonomia-erkidegoak, hautemandako beharrezanei egoki erantzuteko.

- Adierazleen zerrendaren baliotasuna kontrolatzea. Zerrenda horretan, adierazleak alderditan ordenatuta eta bizi-esparrutan multzokatuta daude, eta aukera ematen dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren artatu daitekeen edozein kasuren ezaugarriak biltzeko, eta pertsona erabiltzearen gizarte-egoera zein den ondorioztatzeko. (Zerrendak 172 adierazle ditu, 17 alderditan ordenatuak, eta, halaber, 5 bizi-esparrutan antolatuak: ekonomia, lana eta egoitza; bizikidetza; pertsonala; osasuna; gizartea)

- Eusko Jaurlaritzak, gizarte-gaietan eskumena duen sailaren bidez, udaletako eta foru-aldundietako euskal administrazio publikoen esku Gizarte.net atariaren bitartez jarritako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala eta gizarte-diagnostikoa egiteko aplikazio informatiko komunaren funtzionamendua begiratzea.

7.-Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea.

Testuinguru horretan, Goi Ikuskaritzak honako jarduera hauek garatuko ditu:

-Tresnaren erabilera egokia egiaztatzea. Tresna hori udal- eta foru-arloko gizarte-zerbitzuek nahitaez erabili beharko dute gizarte-bazterkeriako egoerak edo gizarte-bazterkeriako arrisku-egoerak egon litezkeen balioesteko.

-Tresnaren kalkulu-sistema eta adierazleen zerrenda aztertzea. Adierazleen zerrenda dimentsioen arabera ordenatuta dago, eta, aldi berean, funtsezko bost esparrutan antolatuta: ekonomia, lana eta egoitza; bizikidetza; pertsonala; osasuna; gizartea.

-Gizarte.net atariaren bidez erabil daitekeen gizarte-bazterkeria balioesteko aplikazio informatiko komunaren funtzionamendua aztertzea. Adierazle bakoitzaren balioei begiratzea, baita gizarte-bazterkeriako egoerak balioesteko kontuan hartzen diren bi irizpideei ere, gabezia pertsonal eta harremanezkoekin lotutakoari, eta autonomia pertsonal eta ekonomikoa gutxitzeari buruzkoari.



3.- Euskal Autonomia Erkidegoko zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko dekretuaren gaineko nahitaezko txostena.

Lide Amilibia andreak adierazi du Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak puntu hori mahai gainean uztea eta Osasun Sailarekin batera lan egitea proposatu duela, Dekretuan erabilitako terminologiari dagokionez batik bat; izan ere, osasun arloko hiztegia erabiltzen da eta, arlo sozialeko zentroei zuzendutako dekretu bat denez, egokia iruditzen zaio terminologia hori Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean, eta zehazki Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan ezarritakora moldatzea.

Ángel Toñak esan du Dekretua Gizarte Zerbitzuen Erakundearen arteko Organora itzuliko dela lan hori amaitzean, hurrengo bileran haren berri eman dadin.

Jarraian, iruzkinak egiteko tarteari hasiera eman zaio, eta José Luis Quilchano jaunak hartu du hitza lehenik. Barkamena eskatu du Arabako foru-diputatua ez delako bilerara joan, bidaiatzen ari delako, eta adierazi du ados daudela proposatutakoarekin.

Isabel Sánchez Robles andreak ere ados daudela esan du.

Josu Bergara jaunak adierazi du Eudeleko kideak bat datozela kontua elkarrekin

lantzeko Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenarekin.

Lide Amilibia andreak Osasun Saila gaiaren inguruan egiten ari den lana nabarmendu du, egoitzetara joan baitira Dekretuaren xedeari dagokionez dituzten premiak bertatik bertara ezagutzeko. Halaber, adierazi du ados daudela egiten ari diren lanarekin eta azpimarratu du iraillean ekarriko dutela hobetutako testua, Gizarte Zerbitzuen Erakundearen arteko Organoak haren berri eman dezan.

4. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitako Funtzaren Banaketari buruzko informazioa.

Ángel Toña jaunak Lide Amilibia andreari eman dio hitza, gaiaren laburpen bat egin dezan. Lide Amilibia andreak Finantzen Euskal Kontseiluaren 2015eko urriko akordioa ekarri du gogora, 2016ko abendurako aurreikusitako Legea unibertsal bihurtzen lagunduko duen erakundearen arteko funtsa onartzen duena. 2016an funts horrek 10 milioi euro izan zituen udalentsat, egonkortu gabeko zerbitzuetara bideratzeko; 2017tik aurrera, aldiz, 20 milioi ditu, aldundien eta udalen artean banatzeko.



Adierazi du Eudelek dirua banatzeko irizpideak ezarri dituela, bi kontingentzia hauen arabera: gizarte-bazterketa eta adineko pertsonak. Eudeli ematen dio hitza, erabakia zehaztasunez azal dezaten.

Josu Bergara jaunak azaldu du Legea aplikatzeko ibilbide luzea egin dela eta lurraldeetako erritmoa paraleloa eta azkarra izan dela, bilera asko egin baitira aldundien, Eudeleko zuzendaritza-batzordearen eta udaletako ordezkarien artean. Mendekotasunari dagokionez, udalerrri bakoitzeko mendeko pertsonen kopurua hartu da aintzat eta, gizarte-bazterketaren kasuan, aldiz, 18 urtetik gorako pertsonen kopurua. Udalen arteko zerbitzuak martxan jartzeko forma juridikoak sortzen ari dira. Kezkatuta daude ez dakitelako udalek noiz jasoko duten dirua, eta datorren asteartean Bizkaiko Finantzetako Lurralde Kontseiluaren bilera dagoela adierazi du. Udalak finantzatzeko denez, funtsa banatzeaz aldundiak arduratuko direla ulertzen du.

Mar Zabala andreak aipatu du Eudelek funtsari buruzko txosten bat eskatu zuela, eta uste duela Euskadiko udalerrri guztiek jasoko dutela funts hori, baldintzarik ez duen heinean. Txostena entregatu du.

Lide Amilibia andreak adierazi du irailean Gizarte Zerbitzuetako Erakundearen arteko Organoari ekarriko diola Bizkaiko akordio hori. Justifikazioaren gaia gaineratu du eta esan du, eskualdeetan mahaia daudenez, mahaiei dagokiela Gizarte Zerbitzuetako Erakundearen arteko Organoari ekarri beharreko txostenak igortzea, seihilekoko txostena igorri aurretik bertan eztabaida daitezen.

Josu Bergara jaunak aipatu du erritmoa ez dela berbera izango 3 lurraldeetan, eta eskualdearen arabera ere desberdina izan daitekeela.

Isabel Sánchez Robles andreak adierazi du Bizkaian mahaia osatu dutela eta baliozkotzat jo dutela Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan eransteko helaraziko dutena. Eskertuko luke dirua banatzeko modua argituko balitz, Bizkaiko Finantzetako Lurralde Kontseiluari haren berri emateko.

Jon Iribar jaunak esan du jakin nahi duela ea nahikoa den dirua gizarte-zerbitzuetara bideratzen dela justifikatzearekin edo ea zerbitzu jakin batzuetara bideratu beharko den. Dirua banatzeko irizpideak finkatu behar ditu Gizarte Zerbitzuetako Erakundearen arteko Organoak.

Isabel Sánchez Robles andreak aipatu du Funtsari buruzko Akordioa oso argia dela, eta adierazi du ez dela aipatzen justifikatu beharra dagoenik, txostena igorri behar dela baizik. Gobernamendu partekatu baten esparruan,



maila bakoitzari eskumen batzuk dagozkio. Zailegia izango litzateke Funtsari dagokionez udalerrri bakoitzak egindako gastuen jarraipen zehatz bat egitea.

Lide Amilibia andreak argitu du Funtsa egonkortu gabeko udal-zerbitzuetara bideratu behar dela, eta koefiziente horizontalen arabera.

Maite Peña andreak adierazi du 13rako finkatu dela Gipuzkoako mahaiaren deialdia. Funtsaren banaketari dagokionez, akordioa oso positiboa dela iruditzen zaio eta ez dituzte eztabaidatuko Eudelek erabakitako banaketa-irizpideak. Jon Iribarren hitzak eskertu ditu. Justifikazio-maila zehaztu behar da, hiru lurraldeetan maila bera eskatu behar baita. Jakin nahi du Funtsa bazterketarekin edo mendekotasunarekin zerikusia duten zerbitzuetara edo bestelako zein zerbitzutara bideratu behar den. Gutxieneko justifikazio-maila bat eskatzea komenigarria da. Baldintzarik gabeko funts bat da, baina udalerrietan gogoan izan behar dute gutxien garatutako zerbitzuak indartzea dela helburua, eta esan du haren alundia dagoeneko egiten ari dela orientatzeko lan hori.

Mar Zabala andreak uste du, entregatutako txostenaren arabera, udalen eskumen propioak finantzatzeko 2016an Euskadiko Tokiko Erakundeen Legearen 111. artikuluari jarraikiz sortu zen Funts honek ez duela baldintzarik. Ezohiko Funts gisa erabiltzeari dagokionez, etorkizunean baliabide horiek finantzazio-eredu orokorrean sartu litezkeela uste du, udalen finantzazio arruntaren parte izan daitezen. Justifikazioari dagokionez, Plan Estrategikoaren jarraipena egiteko eskema bateratu bat landu beharko litzatekeela iruditzen zaio, planean ezartzen den bezala.

Hernando Lacalle jaunak adierazi du, Udalen Legea kontuan hartu gabe, Funtsari buruzko Akordiora mugatzea dela egokiena, oso argi azaltzen baitu zein den helburua eta zertara bideratu behar diren baliabideak. Justifikazioari dagokionez, Akordioak dio jakin behar dela zertan gastatzen den dirua, ezinbestekoa baita dirua banatu duen administrazioak funtsa zertan gastatzen den jakitea. Beraz, Gizarte Zerbitzuetako Erakundeen arteko Organoak gaia ebaluatu behar du eta txostena Finantzen Euskal Kontseiluari helarazi behar dio, denak baikaude fiskalizazioaren baitan, eta Jaurlaritza, behintzat, legebiltzarraren kontrolaren mende.

Isabel Sánchez andreak adierazi du maila guztiak gaudela kontrolaren eta fiskalizazioaren baitan. Ez dago ados, ordea, administrazio batek beste bat kontrolatzearekin, bakoitzak bere eskumenak baititu eta, jarraipena egitea beharrezkoa bada ere, udalen autonomia errespetatu behar baita.



Josu Bergarak adierazi du funtsa ez dela diru-laguntza bat. Prestakuntza egin eta zerbitzu desberdinetarako gaitu behar diren plazak bete beharko dira.

6. Galderak eta eskaerak.

Proposatu eta onartzen da organoaren hurrengo bilkura irailaren 19ko astean ospatzea.

Beste galdera edo eskaerarik egon ez denez, bertaratutakoei eskerrak emanez, lehendakariak arratsaldeko 17:48ean bilera amaitutzat eman du.

Idazkaria

Lehendakaria

Sin. Emilio Sola Ballojera jn.

Sin. Angel Toña Guenaga jn.